

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5065

AGINDUA, 2022ko urriaren 26koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez xedatzen baita bete dadila Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 2. sekzioak 513/2019 prozedura arruntean 2022ko urtarrilaren 31n emandako 44/2022 Epaia, apirilaren 16ko 68/2019 Dekretuarekin lotuta (68/2019 Dekretua, apirilaren 16koa, Donostiako (Gipuzkoa) Alde Zaharra, Monumentu Maltzo kategoriarekin, Kultura Ondasun gisa kalifikatzen duena eta haren babes-araubidea ezartzen duena).

Ikusi eta aztertu da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salako 2. sekzioak 513/2019 prozedura arruntari buruz emandako epaia betearazteko espedienteak, eta honako hauek hartu dira kontuan:

AURREKARIAK

Lehenengoa.— Apirilaren 16ko 68/2019 Dekretuaren arabera, Donostiako Alde Zaharra (Gipuzkoa) kultura-ondasun deklaratu zen, monumentu-maltzo kategoriarekin, eta haren babes-araubidea ezarri zen (2019ko maiatzaren 2ko EHAA, 81. zk.).

Bigarrena.— 68/2019 Dekretuaren aurka, Promociones Kaiaberri SL merkataritza-sozietateak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen, eta errekurtso hori 513/2019 zenbakiarekin erregistratu zen.

Demanda-idazkian, merkataritza-sozietate horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari eskatu zion epaia eman zezala, nagusiki, errekurritutako dekretua baliogabetzeko, eta, modu subsidiarioan, dekretu hori baliogabetzeko, 7. eta 8. posta-zenbakiekin identifikatzen ziren lursail zaharrak babes morfologikoko araubidean sartzeari dagokionez.

Hirugarrena.— 2022ko urtarrilaren 31n, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salako 2. sekzioak 44/2022 epaia eman zuen, eta epai horren epaitzak adierazi zuen 68/2019 Dekretua zati batean ez zettorrela bat zuzenbidearekin, eta hura deuseztatu zuen, soil-soilik Donostiako kaian 7. eta 8. zenbakiekin identifikatutako bizitegi-eraikinak babes morfologikoaren zerrendan sartzeari dagokionez.

Epai hori irmo bihurtu denez, eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 107. artikuluan xedatutakoa betez, epaiaren epaitza argitara eman da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (2022ko uztailaren 5eko EHAA, 129. zk.) eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2022ko ekainaren 28ko GAO, 122. zk.) argitaratutako ediktu banaren bidez.

Laugarrena.— Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek aztertu dute espedienteak, eta, ondoren, ebazpen-proposamena egin dute. Hona hemen horretarako kontuan hartu dituzten.

OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa.— Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartuak, 10.19 artikuluan Euskal Autonomia Erkidegoari esleitzen dio historia-, arte-, monumentu-, arkeologia- eta zientzia-ondarearen gaineko eskumen eskusiboa, eta Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen du ondare hori esportazioaren eta espolioazioaren aurka babesteko Estatuak ezartzen dituen arauak eta betebeharrak betetzea.

Bigarrena.— Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuaren lehenengo eta bosgarren artikuluen edukiari jarraikiz, eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 104. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari dagokio agindu bidez espediente hau ebaztea, epaia behar bezala gauzatzeko, epaitzan jasotako adierazpenak betetzeak eskatzen duena eginez.

Hirugarrena.— Administrazioarekiko auzien jurisdikzioko epaitegi eta auzitegiek dute epaitutakoa betearazteko ahala, eta prozesuko alderdiek, berriz, epai eta ebazpen horiek bete behar dituzte, horietan zehazten den moduan eta moduan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 103.1 eta 103.2 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Aurreko guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salako 2. sekzioak 513/2019 prozedura arruntean emandako 44/2022 epaia bete dadila xedatzea, Donostiako (Gipuzkoa) Alde Zaharra Kultura Ondasun gisa monumentu-multzo kategoriarekin kalifikatzen duen eta haren babes-araubidea ezartzen duen apirilaren 16ko 68/2019 Dekretuari dagokionez.

Bigarrena.— Epaia betearazpen hori gauzatzea, Donostiako kaiko bizitegi-eraikinak kenduta babes morfologikoa duten eraikinen zerrendatik (4. zerrendako 7. eta 8. zenbakiak).

Ondorioz, aldatu egin behar da 4. zerrendaren edukia, babes morfologikoa duten eraikinei buruzkoa, apirilaren 16ko 68/2019 Dekretuaren III. eranskineko V. kapituluaren sartuta dagoena (68/2019 Dekretua, apirilaren 16koa, Donostiako (Gipuzkoa) Alde Zaharra Kultura Ondasun gisa Monumentu Multzo izendapenez kalifikatzen duena eta haren babes-araubidea ezartzen duena). Honela geratuko da idatzita zerrenda hori:

«4. zerrenda: Babes morfologikoa.

- Embeltrán kaleko 4ko bizitegi-eraikina.
- Kale Nagusiko 16ko bizitegi-eraikina.
- Boulevard kaleko 4 eta 10eko bizitegi-eraikina.
- Kaiko bizitegi-eraikinak, 3, 3 bis 4, 30, 31, 32, 33».

Hirugarrena.— Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta honako hauei jakinaraztea: Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari, Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Auto-gobernu Saileko Auzibide Zuzendaritzari, Donostiako Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzari, Gazteria eta Kirol Departamentuari eta Mugikortasun eta Lurralde Antolamenduko

Departamentuari, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari eta Promociones Kaiaberri SL merkataritza-sozietateari.

Agindu honetan xedatutakoaren aurka, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 109. artikuluan aurreikusitako epaiaren betearazpen-intzidentea sustatu ahal izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 26a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.